



LANBIDEARTEKO GUTXIENeko SOLDATA PROPIOAREN ALDEKO MANIFESTUA

SARRERA / ZIOEN AZALPENA

Langileen Estatutuko (LE) 27. artikulua arautzen du nola finkatzen eta berrikusten den espainiar Estatuko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LGS), hainbat irizpide eta kontsultaren baitan. Hauek, hain zuzen, langileei eragotzi egiten die gauzatzea itxurazko bizimodu bat emango dien ordainsari nahikoa izateko eskubidea, hau da, bizi-maila duina bermatuko duen ordain justua.

Urtea joan, urtea etorri gero eta nabarmenagoa da Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren zenbatekoak ez direla nahikoak bizi-kostu handiei behar bezala aurre egiteko. Eta urtez urte elkarrizketa soziala delako horren eszenaratzea gertatzen da; akordioa izan zein ez, gero eta ezgauzagoa da ezberdintasun sozial hazkorak bideratzeko.

Estatu mailako araugintza bakarra eta zentralista da eta errealitate nazional anitza ukatzen du; horrekin batera, ezarri diren lan-erreformek -PPren Gobernuak 2012an inposatu zuena, indarrean dena eta egungo Gobernuak 2021 amaieran erabakitakoa- taxututako lan-legediak langileen prekaritatea eta soldata askarrak normalizatzen ditu lanaldi partzialeko enpleguaren eta aldizkako kontratu finkoen bitartez.

Horrenbestez, bizimoduaren garestitzeak -zeinak oinarritzko elikagaien erosketa zailtzen duen-, etxebizitza eskuratzean dagoen espekulazio eta prezio gero eta handiagoek errealitate dramatiko bat sortzen dute, soldaten erosahalmenari erasaten diona.

Premiazkoak dira aldaketa sakonak espainiar Estatuko politika publikoetan; aldi berean gainditu behar

dute eredu neoliberal eta “espainiar merkatu bakar” delakoaren obsesioa, zeinak lurralde guztietarako uniformizatzen dituen ezberdintasun ekonomiko eta sozialak.

Azpiatan sinatzen dugun sindikatuok sustatutako lege-gintza-ekinaldi honekin lege-aldaketa bat aldarrikatzen dugu LGSa hobetu eta bidezkoagoa izan dadin, bi bidetatik: Batetik, Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren zenbatekoa deszentralizatzea, eta bestetik, adierazleak zein langileengan duen eragina hobetzea, soldata hobetzeko aukera benetakoa izan dadin. 2022/2041 EB zuzentarauaren ondorioz Langileen Estatutuko 27. artikulua aldaketa eztabaidagai izango denez, uste dugu premiaz ekin behar zaiola Autonomia-Erkidegoek LGS propioa ezartzeko aukerari buruzko eztabaidari.

Lehenengoari dagokionez, estatu mailan ezarritako gutxienekotik abiatuta, Autonomia Erkidegoen esku jarri behar dira errealitate ekonomiko eta sozialari egokitzeko mekanismoak eta adierazleak.

Bigarrenari dagokionez, LGSaren berrikuspenek eta haren aplikazioak bermatu behar dute soldata-tauletan igoera automatikoa eta berehalakoa izan dadin eta langileak jasotzen dituen soldata-osagarriak ez direla konpentsagarriak, ez xurgagarriak izango.

Azkenik, aurreko gure proposamenarekin batera galdegiten dugu bertan behera utz dadila Eragin Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoa (EAEAP, erdaraz IPREM) eta lanbidearteko gutxieneko soldata adierazle publiko bakar gisa hartzea edozein prestazio sozial publikoren zenbatekoa finkatzerakoan.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

LAB


steilas


eTXalDE
nekazaritza iraukorra

HIRU


Confederación Intersindical Galega

INTER SINDICAL
TREBALL | REPÚBLICA | JUSTICIA SOCIAL


INTERSINDICAL
VALENCIANA


IAC
INDEPENDENCIA
ALTERNATIVA DE CATALUÑA

STEI



ALDAKETA PROPOSAMENA

Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina erreformatzeko lege-proposamena, autonomia-erkidegoei beren LGS propioa ezartzeko eskumenak aitortzera bideratua, Espainiako Konstituzioaren 150.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Artikulu bakarra. Urriaren 23ko 2/2015 Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginean (LELTB) xedatutako LGSaren arauketa aldatzea.

Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina aldatuko da, ondoko xedapenen baitan:

**Lehenen: LETBaren 27. artikulua aldatuko da; hone-
la idatzita geratuko da:**

27. artikulua. Lanbidearteko gutxieneko soldata.

1. Gobernuak finkatuko du, behin ordezkartza gehieneko sindikatu eta enpresario-elkarteei kontsulta eginda, lanbidearteko gutxieneko soldata, honakoak aintzat hartuz:

- a) Kontsumoko prezioen indizea.
- b) Iritsitako batez besteko produktibitate nazionala.
- c) Lanak errenta nazionalen duen partaidetza-
ren igoera.
- d) Egoera ekonomiko orokorra.
- e) Errenta, eskura dauden zerbitzu publikoak,
bizitzaren kostua edota antzeko adierazleak.

Halaber, sei hileroko berrikuspena egingo da baldin eta aipatutako prezio-indizearen inguruko aurreikuspenak betetzen ez badira.

Lanbidearteko gutxieneko soldataren berrikuspenak ez die eragingo langileei aplikatzen zaizkien ordain-sari profesionalen egiturari, ezta zenbatekoari ere.

2. Lanbidearteko gutxieneko soldataren zenbatekoa, urtekoa nahiz hilekoa, enbargaezina da. Aurrekoa zehazteko, kontuan hartuko dira bai sortzapen-aldia bai zenbatzeko modua, aparteko ordainsarien hainbanaketa sartuta edo sartu gabe; kasu bakoitzean ateratzen den zenbatekoa enbargaezina izango dela bermatuko da. Bereziki, hileko soldatarekin batera sariren bat edo aparteko ordainsariren bat jasoko balitz, enbargaezintasun-muga hileko lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoaren bikoitza izango da, eta jasotako hileko soldataren barruan aparteko ordainsari edo haborokinen zati proportzionala egonez gero, enbargaezintasun-muga lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa izango da, urteko konputuan, hamabi hilabeteren artean hainbanatuta.

3. Autonomia-erkidegoek beren lurraldean aplikatzekoa den LGS bat ezarri ahal izango dute, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa edozein dela ere; horretarako, kontuan hartu beharko dute artikulua honen 1. paragrafoan eta lege honen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa. Betiere, autonomia-erkidegoan ezarritako LGSak Estatuak ezarritakoa baino handiagoa izan behar du urteko eta hileko konputuan.

Bigarrena: LETBari ondoko Xedapen Gehigarria erantsiko zaio

Xedapen gehigarria. Legearen 27. artikulua 1. eta 3. apartatuak ematen dira Espainiako Konstituzioaren 150.1 artikuluan aurreikusitako Estatuaren eskumenaren indarrez.; 1. paragrafoko aurreikuspenak dira eskumen autonomikoa egikaritzeko den esparruko printzipioak, oinarriak eta gidalerroak.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

LAB


steilas


eTXaLDe
nekazaritza iraukorra

HIRU

CG
Confederación Intersindical Galega

INTER SINDICAL
TREBALL | REPÚBLICA | JUSTICIA SOCIAL


INTERSINDICAL
VALENCIANA

iAC
INTER SINDICAL
ALTERNATIVA DE CATALUNYA

STEI